

Itziar Nazabalek arte plastikoaren tailerra ireki du

Arte plastikoaren jinguruko i kastaroak emanen ditu artista altsasuarrak

Arte ederretan izentziatu den Itziar Nazabal Regueira altsasuarrak karrerako lehen 3 urteak Salamancan eman zituen. Euskal Herriko Unihertsitatean beste bi ikasturte eman zituen diseinu, pintura eta haurrendako pedagogian sakontzen. Azkenik, beka bati esker Ingalaterrako Bradford hiria grabatuaren teknika ikasi zuen.

Itziarrek margotzea du gustukoena eskultura, bitxigintza edo artisautza ez ditu baztertzeko. Esaterako, Bartzelonan bere bitxiekin desfilatu izan du moda ibiltoki edo pasarelaren batean, laz Ziordian *Begiricida impresionista* izeneko margolanen erakusketa egin zuen. Horretaz gain, Koldo Arnanzek antolatutako bizpahiru erakusketa kolektibotan parte hartu du. BBKren Bilboko aretoan diseinuari buruzko erakusketa kolektibo batean parte hartu zuen. Kordoban, José Martínez margolariarekin ikastaroa eta gero lanak erakusteko aukera ere izan zuen Itziarrek. Ingalaterran ere hiru erakusketa egin ditu.

73 metro karratuko tailerra

Itziar Nazabalek larunbatean mustu zuen Altsasuko Idertzagain kaleko 9. zenbakian 73 metro karratu dituen tailerra. Gertukoek eta Cederna-Garalur elkarteak emandako laguntzarekin atera du aurrera egitasmoa. Artistaren aspaldiko

asmoa zen hori, orain arte itziar batean ematen baitzuten eskolak. Mustutze ekitaldia polita izan zen. *"Jende asko ibili zen sartit' eta atera etagiropolita izan zen. Gainera, lagunek sorpresa moduan aurrekaria etaguzit antolatutako zidaten eta horrek asko hunkitit ninduen. Tailerrean nire margo batzuk zintzilikatunien eta luntxa antolatutako genuen. Oso ongi atera zen dena"*.

Tailerrean klaseak emateko gune handi eta zabala prestatu du Nazabalek. *"Klaseak emateko gune zabala da, kolore biziz margotua, armairu eta konketekin. Ondoan nire bulego edo tailer txikia izango dena dago. Tailerrean ere erakusketak antolatzeko asmoa daukat"*.

Haurrak eta helduak

Gaur egun Itziarrek 3 eta 11 urte arteko 38 haurri eta 10 helduri ematen dizkie eskolak bere tailer berrian. Horretaz gain, Bakaikun klaseak ematen ditu larunbatetan, ludotekan. 3 eta 12 urte arteko 25 gaztetxo joaten dira. *"Haurrekin, txiki-txikitik arte plastikoak lantzen hasten naiz: pintura, mozarra, ke-ta, plastika, buztina, papera, puntzioa, guratzak, pegatinak... denetatik lantzen dugu. Haurren garapen, sentsibilitate eta psikomotrizitateko oso garrantzitsua da arte plastikoak lantzea. Gero, 12 urtetatik aurrera plastika lantzen dugu baina zail-*



Haurrekin denetatik lantzen dit Itziar Nazabalek.

tasun gehiago dituzten gauzak sonuz. Eta helduekin gehiago lantzen dit marrazketa teknika eta pintura: proportzioa, perspektiba, margotze teknikak..." dio Itziarrek.

Gaikakotailerrak

Aldika gai jakinei buruzko tailerrak emateko asmoa du Itziar

Nazabalek. *"Tailer puntualago batzuk prestatzeko asmoa daukat. Adibidez, Bakaikun eskatu didate artisau koadernaketari buruzko tailer bat ematea. Horretaz gain, xaboa edo belak nola egin, letoizko objektuak nola margotu, zeramika... eta halako tailerrak antolatzeko asmoa daukat"*.

Bestetik, asko gustatzen zaio kalean egindako margoa edo aire zabaleko pintura. *"Udan hauzera helduendako aire zabaleko pintura tailerrak proposatu nahi ditut. Adibidez, astoa edo caballetea hartu eta nonbaiterajoan, pintatzen. Kalean margotzeak ematen dizun sententzia eta gustua handia da. Aberastasuna ematen dizu, berez"*.

Margotzen jarraitzeko asmoa

Itziar Nazabalek margotzen jarraituko du. *"Margotzea nire pasioa da. Artista bezala nire lekutxo hartzeagustako litzaidake, baina oso zaila da. Horre-*

tarako erakusketak egin behar dituz, baina galeriatan zire lañen erakusketak egiteko aurretik beste tokitan erakusketak egin izana eskatzen dizute. Hala ere, margotzen jarraituko dut. Bestalde, tailerrean nik dakidana erakusketakoz handia ematen dit eta klaseak ematea gustuko dut. Ildo honetan oso eskertua nago ikasle guzietekin. Erantzuna oso ona izan da eta oso kontentu nago" dio artista altsasuarrak.

Enkarguak

Nafarroa Oinezarako lepokoak, belarritakoak eta intsentsu-ontziak egin ditu, baina bitxigintza alde batera utziko du memento. Hortaz, tailerrean zentratu eta bere obrarekin jarraituko du Nazabalek, pixkanaka erakusketak egiteko helburuarekin. Gainera, margo enkarguak ditu. Margogintzan denetarik egiten du: hiperrealismoa, abstraktu figuratiboa, impresionismoa kopiatzeko... Akuairela eta paisaiak oso gustuko ditu.



Itziar Nazabalek klaseak emateko bokazioa du.